

## «OLERTI EGUNA»

Ogetaz urteak joanak dira jai au, beti pozik, ospatuz goazala emen Larrako txoko onetan. Guztiz olerkitsuak doguz toki au eta inguruak, ezta beraz iñoiz gogaitu barik urte-mordoa dala asiari jarraitzea.

Euskal olerkari ta bertsolaririk geienak ementxe izan dogu alkar aurkitze alaikorra, azaroaren azkenetako egun nabari ta ondoren aundiko baten, Kristo Erregeren egunez ain zuzen be. Ementxe artu izan dabe neurtizlari askok eta askok arnasa barria euren lanean aspertu barik aurrera egi-teko. Lan txalogarria izan da, beraz, alkarren leian egin izan doguna.

Gaur osteraz zoritxar naste askoren mende jausiak gare-larik, aspertu egin gareala dirudi solo onetako saillean, ez gara beintzat antxiña bateko garrez olerki-soloan saiatzen. «Olerti» aldizkari txanbeliña ixil-azoa izan zan orain amaika urte; gerora, ak eta onek poesi-liburu batzuk argitara izan dabez, baiña urritasun ikaragarrian damurik. Eta egoera or-tan gagoz, benetako urritasunean, norbaitek dabillega za-palduta erdi-illik datzan ar kaskarraren pareko. Noiz jagiko ete? Eta ibilli?

Gure erria, ainbat gauzari bultz-eragiteko abagune onean, illik dago, besoak lurrerantz ditularik. Ez leuke olan izan

bear; gorantza jaso bear leukez, maats aienezko txorta be-  
zela, Mois'ek Sinai tontorrean legez, eskari beroan. Larri-  
gagozanean batez be goratu bear doguz biotz-adimenak. No-  
rengana ete? Or gabiltz, berezko sentipenen kontra, Jainkoa-  
gandik igeska; baiña gure indarrak, lurrez astun, eztira zer  
aundirik berez. Beraz, zergaitik ez gorantza jaso geure begi-  
biotzak?

Lotsa ete gara jokabide ortarako? Etziran lotsa, begiak  
goi jarteko, erri askatzaille asko. Dabid etzan lotsa, etzan  
lotsa Rizal, etzan lotsa Arana Goiri.

Poeta aundiak beti izan yatzuz Jainko-zale, Bera bait da  
idea, sentipen eta zer garai guztien iturburu. Bizia ta artea  
mailla bat-berean erabilli izan dabez olerkari askok. Ederra  
ta oitura, erritarren morala, mailla berean. «Ez dago ederrik  
moral gabe, iñoan Biktor Cousin'ek, ezta moralik ere egirik  
gabe». Eta J. B. Yeatz irlandar erri-olerkariak, begiak goi-zi-  
tuela idatzita itxi euskun: «Aita da egiazkoa, eta Aitak sortu  
daroa Ona, ots, Morala, ta au Semeari dagokiona da, eta  
Onegandik dator Ederra, eta onek bere aldetik Espiritu  
Santua antzezten».

Ba-dogu oindiño ikasbide oberik. Jar begiak Rabindra-  
nath Tagore, indiar olerkari gurenarengan. Erlijiosoa guztiz,  
Kristoren irakatsiak egiazki zoratu eragin eutsona. Erriz erri-  
ibilli zan gaztetan, egiaren billa; bidazti ta olerkari beti.  
Ibilliaren ibilliz, jakiña, aren arima gero ta zabalago, jaki-  
tunago, zoliago egiñik joian. Eta itxi euskuzan poemak zora-  
mena darioela daukaguz.

India'n zear dabil begi-zorrotz. Ona ta ederra nai ditu  
bere erriarentzat. Ederra ikusten dau inguruan, guri-guri. Eta  
goiz batean, biran daukana ikusiz, uste dau, egiaz uste gero,  
bera dala ortarako deitua, «argi ori beretarrai emon-azteko,  
poesi-munduko ikuskizun orixe, bere arima ta irudimena ixio-  
tuko ditun sugarra. India osoa argituko dauana nunbait». Bere  
buru-jabe izan nai dau India'k, baiña Ingalaterra'ren aginte  
zigorpean urte asko daroaz...

Oso berezia da R. Tagore; txukuna, jantzi-jantzia; aberatsa  
ta mistikua. Asko idatzi eban, bere idaz-tankera sorturik. Sugar

bat zan India'ren biotzean dardar. Olerkari da, baiña ez errazoi  
barik; ulertzen dau ak, eta ondo ulertu be, olerkiaren in-  
darra baliotsua dala erriaren askatasuna lortzeko. Ez dau  
txilliorik ateratzen, baiña idatzi bai, ixillik eta ekiñean. Eta  
Goi-Goikoari laguntza eskatuz.

Izarrak, ixil eta iraunkor, mezu bat bialtzen diardue. Zer  
gaitik ez orobat gure bertsolariak, eta olerkariak? Geure  
lan ixillean eta eroapen aundikoan, on-iturri izan geintekoz.  
Zergaitik ez izan ostera?

Asmo oro barnean darabilgula, ospatuko dogu aurtengo  
«Olerti Eguna». Olan egin izan da beste urteetan, naiznoz  
alaitu ta lan-gogoz.

Konkurtsorako lanak eta baldintzak, baita egun ortako  
—azaroaren 22'ko— egitaraua be beste urteetan lakoxeak  
izango dira: lirika sailla, poemak, bertsolariak, eta alegiak.  
Bial al bait ariñen lanak. Eta egun ortan zain naukazue, beti  
lez, Larrako egoitza baketsu ontan.

Aita Onaindia